



ALKATETZAREN MEMORIA: 2016KO AURREKONTUA

Memoria honek 2016. ekitaldirako Aurrekontuen dokumentua aurkezten du, diru-sarreretan eta gastuetan aurrekontu orekatua.

Egia da zertxobait beranduago datorrela urte honetan Aurrekontuen dokumentuaren onespena, baina ataza horretan denok sartu ditugun orduak eta egin dugun ahaleginak merezi izan duela esatea nahitaezkoa da.

Aurtengo Udal Aurrekontuak ez duela kontrako botorik izango nahiko ziurtzat emateak ondokoak baieztatzen dizkigu: alde batetik, aurkeztu zen jatorrizko Dokumentu hura nahiko ona zela udal talde guztiek dokumentu haren inguruan lan egitea eta beraien ekarpenak hari egitea erabaki izan dutelako; eta, bestetik, denok izan garela gai gure arteko diferentziak alboan utzi, gure elkarguneak sendotu eta proposamen bat hezur-mamitzeko, zeinean denok nahiko islatuta sentitzen garen, modu batean edo bestean, horren alde egiteko.

Lanerako erabili zen proposamenak 31.942.465,66 €-ko aurrekontua zuen, 2015. urtean baino % 3,7 gehiago, ekonomia orokorrean nabaritzen ari den nolabaiteko hobetze horren ondorio. Udal taldeekin negoziatu ondoren behin betiko proposamena 33.298.125,66 €-n geratu da, hau da: 2015ean baino % 7,9 gehiago eta zirriborrotzat aurkeztu zen aurrekontu hura baino % 4 bat inguru gehiago.

Goian esan dudan bezala, 2016rako aurreikuspena da ekonomiak hobera egingo duela, beraz, ekonomia-ehunak portaera hobeago bat erakutsiko du administrazioekin elkarlanean arituta aberastasuna sortzeko duen ahalmenean eta administrazioek dirua biltzeko duten ahalmenean. Denon erronka da ekitaldi honetako desafiotzat hartu ditugun aurrekontu-aurreikuspenok handiagotzea.

Gauzek hobera egin arren, oraindik ere urrun gaude mende honen aurreneko hamarkadako aurrekontu haietatik, sasoi hartako aurrekontuak 40.000.000 €-tik gertu ibiltzen baitziren. Denok barneratu behar dugu ez dela berriro horrelakorik izango, beste errealitate batzuk tokatu zaizkigula eta tokatuko zaizkigula kudeatzea.

Agintaldi berri baten aurreneko urtean gaude, hortaz, lau urteko agintaldiaren aurrenekoan. Hauteskundeetako emaitzek udalerrriaren mapa bat irudikatu dute, eta mapa horrek alderdi bat finkatzen badu ere hiria gobernatzeko



eta hiriaren kudeaketa burutzeko, beste alderdi batzuekin akordioetara heltzea exijitzen dio hiri-proiektuak aurrera atera ahal izateko. Oraindik ezin izan gara heldu agintaldi osoko egonkortasun akordio batera ezein udal talderekin, beraz, akordio-bilatze horrek markatzen du egunez egunekoaren agenda.

Hala da: ez dago ezer berririk eguzkipean, izan ere, Alkatetza honek eta honi eusten dion taldeak, beti bilatu izan baitute –egonkortasunik izan ala ez- akordioak zabaltzeko bidea, akordio horiek zilegitasun handiagoa izan zezaten. Horixe izan da gure gida udal gobernutik, eta horixe izango da agintaldi honetan ere.

Aldi berean adierazi nahi dut negoziatzeko izpiritu hori beste erakunde batzuetara zabaldu dugula, eta oraingo urte honetan ere, beste behin, horrek onura ekarri diola gure hiriaren inbertsio-gaitasunari. Halaxe da: PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek Eusko Jaurlaritzaren egonkortasunerako izenpetu zuten akordioari esker eta 2016ko kontuetarako negoziazio-prozesuaren ondorioz, PSE-EEK gure hiriari mesede egiten dioten hainbat zuzenketa sartzea lortu izan du, zenbatekoa 2.500.000 € izanik.

Dokumentuko sarreren eta gastuen kapituluek duten portaera aztertzen hasi baino lehen, uste dut beharrezkoa dela proposamen hau egiteko jarraitu diren irizpideak eta oinarriak zeintzuk izan diren azaltzea. Ziur aski irizpide ezagunak, baina, nire ustez, Memoria honetan jaso beharrekoak.

-Joan zen maiatzaren 24an, Eibarko hiritarren aurrean aurkeztu ginen hainbat eta hainbat ekintza zehatz biltzen zituen hauteskunde-programa batekin. Jaso genuen babesak legitimatu egiten gaitu eta orduan hartutako konpromisoak betetzera derrigortzen. Zalantzarik gabe, errealitate sozioekonomikoak –hazkunde ekonomikora doan bidezidor txiki bat ikusten uzten badigu ere– behartu egiten gaitu egitea agindu genituen ekintza guzti horiek hierarkizatzen, lehenestera eta planifikatzen.

-Azken urteotan –krisialdiak indar gehiagorekin kolpatu izan duenean– garbi eta argi geratu bazen ere, gobernu-talde honen lehenetasun lagaezinetako bat da, ez bakarrik udal zerbitzu guztiei eusten jarraitzea, baita zerbitzu horien kalitatea mantentzea ere. Egi benetan, sufritu dugun krisia gogorra izan bada ere eta oraindik hortik irteteke egon arren, edozein konparazio jasateko modukoak diren kalitatezko zerbitzu batzuk ematen jarraitzen dugu; eta oraindik gehiago testuinguru honetan, beste erakunde batzuk beraien eskumenekoak diren zerbitzu batzuk moztea erabaki dutenean,



-Dударik gabe: nortasun-ezaugarritzat gardentasuna eta hiritarren partehartzea sendotu behar dira, eta ez bakarrik Aurrekontu honetan, baita Administrazio honetan ere.

-Azkenik esan behar dut aukera-irizpideak ere aprobetxatu egin behar direla dokumentua aberasteko. Kanpotik iritsitako aukerak, PSE-EEK Eusko Jaurlaritzarekin hartutako akordioak esate baterako, 2016. urtean gure hiriarentzat 2,5 milioi euro lortzea ahalbidetu eta azken hiru urte hauetan 8 milioi euro metatu dituztenak.

Udal barruko aukera-irizpideak, oposizioko taldeek egin dituzten zuzenketa bidez eta horren ondoko negoziatuetatik eta akordiotik datozkigunak. Zuzenketa horiek, batzuetan, gure plangintza aurreratzea dakarte, horien edukia gure programarekin bat datorrelako; beste batzuetan ostera, negoziatioaren bidez erdibidera jo izan da, erdibideko zuzenketa horretan alde biek beren burua islatuta sentitu dezaten, eta azkenik, taldeen ekarpenak ere izan ditugu, aurreikusteke zeudenak eta Dokumentua aberastu dutenak.

DIRU-SARREREN EGOERA

A. ERAGIKETA ARRUNTAK

1. kapitulua. Zuzeneko zergak

2015ean bertan ere, 2014koarekin konparatuz, % 3,6aren igoeraaurreikuspen bat izan zen. Ekitaldi honetan, aurreikuspenak % 3,5eko igoeraportzentaje batean jartzen gaitu.

Udal honek, 2015ean nahiz 2016an, tasak, zergak eta prezio publikoak izoztea erabaki duela kontuan hartuta, ondorio honetara iritsi behar dugu: igoera hori zertxobait hobeto doala erakusten duen joera ekonomikotik datorkigula, gure kasuan, kontzeptu ia guztiei eragiten diena (OHZ, JEZ, Ibilgailuak eta Plusbalioa).



2. kapitulua. Zeharkako zergak

Epigrafe honetan jasotzen den kontzeptu bakarra Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarena da (EIOZ).

Zerga hori aztertzeko orduan gogora ekarri behar da Udal honetako zergapolitikak urte asko daramala Eibarko familiei laguntzen.

Alde batetik esan behar da zerga hori ez dela kobratzen komunitateko birgaikuntza obretan (fatxadak, igogailuak) edo norbere etxea eraberritzen denean.

Bestalde, komunitateei ematen zaien laguntza sendotzeaz gain hobetu ere egin da fatxadak birgaitzeko diru-laguntzen bidez, hobekuntza energetikoko neurrientzako laguntza berezia ezarriz, baita igogailuak jartzeko edo ordeztzeko edo pegoretako irisgarritasuna hobetzeko ere.

Aipu hori egin ondoren esan behar da 2016. urtean hirian obra garrantzizko batzuk egitea pentsatuta dagoela, eta asmo horiek baieztatuz gero, kapitulu hau hirukoiztu egingo litzateke 2015. urtekoarekin konparatuta. Espero dugun dirusarrera hori etorriko delakoan eta asmo horiek beteko direlakoan gaude.

3. kapitulua. Tasak eta bestelako diru-sarrerak

Kapitulu honetan aintzat hartu behar da tasak, zergak eta prezio publikoak izozteko hartu den erabaki politikoa. Berriro ere, era horretako erabaki bat hartzea eskatzen zuten urte arteko eta urteko KPIren bilakabideak –ia hondarrekoa– eta, oraindik ere, krisialdiaren eraginak.

Horregatik kapitulu honen igoerak ez du % 1,6 eskas batetik gorakorik izango, diru-bilketa kontzeptu batzuen portaera hobeagotik datorren igoera.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak

Aurrekontu honetako diru-sarreraren zenbatekoetan kapitulurik garrantzizkoena dugu honakoxe hau, zalantzarik gabe. Aurrekontuko sarreraren



% 56tik gorakoa du, eta eskatzekotan gauden kreditu-aurreikuspen hori kenduko bagenu, portzentaje hori % 60tik gertu egongo litzateke.

Kapitulu honen barruan garrantzia handia du Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren portaerak, izan ere, praktikan, hark duen pisua kapitulu honen ia % 90 baita.

Orobat, Foru Funtsaren portaera honek ez digu bakarrik Udal Aurrekontuak izango duen bilakabidea antzematen uzten, lagatzen digu baita lurraldearen ekonomiak hartuko duen joera begizatzen eta hura haztatzen, Funts hau, batik bat, Foru Ogasunak diru-bilketarako duen zerga-egituraren ahalmenean oinarritzen baita. Beraz, Foru Funtsak gora egiten badu ekonomia hobera doala esan daiteke, zuhurtasunez eta tentuz diogun arren.

Joan zen urtean egin genuen bezala, eta kontuan hartuta baita 2014az geroztik Foru Ogasunak helarazi dizkigun aurreikuspenak doiagoak izan direla, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako aurreikuspena islatzea erabaki dugu 2016. urteari begira.

Horrek, 2015. urtearekin konparatuz gero, % 6 baino zertxobait gehiagoko igoera dakarkigu. Partida gehienak dagoeneko martxan jarrita dauden programen transferentziei buruzkoak dira, eta horien gorabeherak, batzuetan, programa bakoitzaren egoeraren arabera izaten dira.

Komeni da argitzea, hori bai, GLLetako partida, horren zenbatekoan jaitsiera bat dagoela ematen duelako. Horren haritik haxe argitu behar da: 2015. urtean, partida horretan Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako kopurua baino kopuru handiagoa jarri zela, eta Jaurlaritza da laguntzotan eskumena eta erantzukizun ekonomikoa duen erakundea. Ekitaldi honetan, bakarrik Jaurlaritzak ematen duen dirua sartzea erabaki dugu, eta urtean zehar diruekarpen handiagoa behar izanez gero, hari eskatzea deliberatu. Azken uneko berrien arabera baliteke zenbatekoa aurreikusitakoa baino zertxobait handiagoa izatea. Horrela bada, dagokion egokitzapena egingo diogu.

Halaber, Enplegu Planera zuzendutako partidek behera egin dutela iruditu arren, eta, hasiera batean partida horiek Dokumentu honetan ez agertu arren, gero 300.000 €-ko partida bat txertatuko dugu gure hirian enplegua sortzen laguntzeko.



5. kapitulua. Ondare sarrerak

Kapitulu horrek ez du pairatzen ia inongo aldaketarik, eta Aurrekontuaren guztizkoan ere ez du eraginik.

6. kapitulua. Inbertsio errealak besterentzea eta beste sarrera batzuk

Normalean zuri uzten den kapitulua dugu Aurrekontuan, baina urte honetan hemen azaltzen da, Udaltzaingoko ibilgailu batzuk saltzeko asmoa dugulako.

B. KAPITAL ERAGIKETAK

7. kapitulua. Kapital transferentziak

Zail samarra izaten da kapitulu hau aurreko urteetakoekin konparatzea, kapitulu honen urteko kuantifikazioa udal izaerako programetan eta inbertsioetan beste erakunde batzuek ematen duten diru-laguntzaren araberakoa delako.

Memoriaren hasieran bertan azpimarratu dudana bezala, PSE-EEK eta EAJPNVek Eusko Jaurlaritzaren egonkortasunari begira hartu duten akordioak eta erakunde hartako aurrekontuen urteko negoziazioak, 2016. Urtean, 2,5 milioi euro jasotzeko aukera eman digu, gure hirian hainbat jarduketa egiteko, hiriinguruneak hobetzeko, irisgarritasunerako, ekipamenduetarako eta eraginkortasun energetikorako.

Bestalde, ikastetxeak hobetzeko diru-laguntzak ematen dituzten planetara jotzeko asmoa dugu.



8. kapitulua. Finantza-aktiboak.

Eragin gutxiko beste Kapitulu bat dugu hau, langileei emandako aurrerakinen diru-itzulerari dagokiona.

9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

Hauxe dugu halabeharrezko Kapitulu sarreren eta gastuen arteko oreka ezartzeko. Azken urteotan, Udal honek gastu publikoa kontrolatzen eta arduraz jarduten egin duen egundoko biharrari esker zorpetze-maila benetan bekaizgarria duen Erakunde bat dugu.

Ekitaldi honetarako zorpetze-proposamena ia 1,9 milioi eurokoa da, eta Aurrekontu honetako ezaugarri ekonomikoek plan ekonomiko eta finantzario bat aurkeztera behartzen bagaituzte ere, plan horrek ez du planteatu beharko berariaz hartu beharreko inongo neurririk, izan ere, azken ekitaldi bietan Diruzaintzako Gerakina lotzen joan baita Errebaleko obrei aurre egiteko. 2015eko Aurrekontua likidatzen denean eta han geratuko den Diruzaintzako Gerakina zehazten denean, horren zati bat ere lotu egingo da Errebaleko obrak finantzatzen jarraitu ahal izateko.

GASTUEN EGOERA

Memoria honen atariko zatian aurreratu dugun bezala, proiektu honek 2015ekikoarekiko duen hazkunde-aurreikuspena azkenean % 7,9 inguruan finkatu da. Apustu garrantzitsu baten aurrean gaude, eta denon artean gauza izan behar dugu horri heltzeko. Eta hori horrela da gure gogoia hauxe izan delako: Udal Taldeak asmo honekin behar bestean identifikatuta sentitzea, bai abiapuntuan nola helmugan, horixe zen nahi genuena, negoziazioen, erdibideen eta akordion bitartez kontrako bozka bat bera ere jasoko ez duen Aurrekontu bat plazaratzea; beraz, hori litekeena bada, zilegitasun handiagoa izango du erraminta legez 2016 urte honetako erronkak kudeatu ahal izateko.

A. ERAGIKETA ARRUNTAK



1. kapitulua. Pertsonal gastuak

Kapitulu horrek beti izan du pisu berezia guztizko gastu osoan, gastu-egoeraren ia heren bat hartzen baitu.

Abiatzeko adierazi behar dugu urte honetako aurreikuspena % 1etik gertu dagoela Estatuaren Aurrekontu Orokorretan jasotakoaren arabera eta gainerako erakunde guztiok errespetatu behar duguna.

Halaber, urte honetan LZ berraztertzeke prozesu bati ekiteko eta udal organigrama behar bezala egituratzeko konpromisoa baieztatu nahi ditut, betiere eraginkortasunaren, efikaziaren, aitorpenaren eta gastuaren irizpideei men eginez. Kapitulu honetan dagoeneko ia-ia 11 milioi eurotan gaude, eta larregiko edozein desbideratzek zalantzan jar dezake Erakundearen kaudimena.

2. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak

Kapitulu honek igoera handia du arrazoi nagusi bi hauengatik:

- Gure konpromiso irmoa, urte guzti hauetan defendatu duguna: hiritarrentzako sentsibleak diren zerbitzuei dagozkien partidak diruz eustea.
- Udal Taldeekin egindako negoziazioaren eta akordioaren emaitza, kapitulu honek izan duen gorakada, hainbat esparru eta arlotako – arlo ekonomikoak eta kulturalak nahiz sozialak– azterketak eta estudioak egiteko zenbatekoak igotzean.

3. kapitulua. Finantza gastuak

Kapitulu honek Udal honek duen zorraren interesengatik ordaintzen duena jasotzen du. Goian esan dugun bezala, Udal honek duen zorpetzemaila artatsua izateaz gain, talde teknikoek erabat kontrolatutakoa dugu eta zeharo onargarria da.



Ikus daitekeen bezala, aurreko ekitaldiarekin konparatuz gero, aurreikuspena modu nabarmenean murriztu da.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak

Hondakin bilketa zerbitzuaren kudeaketa osoa Debabarreneko Mankomunitateak bere gain hartu eta horren eragina barreiatu ondoren, kapitulu honek % 1,5aren inguruko igoera du.

Garrantzizkoa da zehaztea kapitulu honetan biltzen direla beren jarduera eramateko beste erakunde, entitate, elkarte eta taldeei egiten zaizkien diru-ekarpenak.

Zerrenda ezin luzeagoa aterako litzaiguke kapitulu honen babespean gauzatzen diren jarduera, programa edo proiektu guztiak bilduko bagenitu: hementxe dugu Eibarko gizartearen erakusgarririk bikainena, herri honek elkartzeko eta gauzak antolatzeko duen sekulako gaitasun hori. Azken urte hauetan, krisialdiaren ondorioz, herriko elkarte-ehunari, orokorrean, Udalak egiten dizkion diru-ekarpen guzti horiek izoztuta egon direnez, ekitaldi honetan bertan elkarlan horrena % 10ean gehitzea erabaki dugu, datozen ekitaldietan ekarpenok pixkanaka gehitzen joateko modua bilatuz.

Dokumentuan zehar jasota badago ere, azalpen huts gisa, hona hemen kapitulu honetan biltzen diren zenbatekoen zertarakoa: GLLak, Enpleguko Tokiko Plana, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenaren aldeko laguntzak, alokairu-merkatuaren pizgarriak, langabetuentzako edo pentsionistentzako laguntzak; edo, hiriko ehun ekonomikoarekin elkarlanean arituta, Ekonomia Garapenaren arlotik martxan jartzen ari diren programa guztietarako ipini den ia miloi bat euroko zenbateko hori, enpresa-, ekintzaile- eta prestakuntza-hazkundera bultzatzeko jarritako dirua.

Halaber, kapitulu honen barruan daude sartuta baita Musika Eskolari, Eta Kittori, San Andres Fundazioari edo Kirol Patronatuari egiten zaizkien diru-transferentziak.

B. ERAGIKETA ARRUNTAK



6. kapitulua. Inbertsio errealak

Ekitaldi honetarako aurkeztu den Aurrekontua asmo izugarri handikoa da: ia 7 milioi eurokoa; beraz, joan zen ekitaldian baino 1,7 milioi euro gehiagokoa.

Aurreko ekitaldietan bezala, zati handi bat, jardunaldi honetarako duen aurrekontu-akordio esparru horren barruan, Eusko Jaurlaritzak egiten duen ekarpenetik datorkigu. Zehaztuta, joan zen urtean emandakoa beste, 2,5 milioi euro. Baina kapitulu hau kanpoko ekarpen horiek kontuan hartzeke aztertzen badugu, gure baliabide propioekin egiten den ahalegin hori ia % 80an gehitu dela ikusiko dugu; eta horrek aukera ematen digu orain arte garatu diren funts publikoen kudeaketa ganorazkoa izan dela esateko, eta aukera ematen digu baita, zenbateko handi bat, hirian inbertsioak eginez, gure hiritargoaren kalitatea hobetzen erabiltzeko.

Baina, hala ere, aurreko ekitaldiarekin dagoen diferentzia kuantitaborik handiena hauxe da: aurtun 2,3 milioi eurotik gorako partida bat sartu behar dela Errebaleko proiektuak dituen aurrekontu-premiei erantzuteko.

Egia da kapitulu horrek duen zenbatekoarekin ez direla betetzen premia guztiak, baina, zalantzarik gabe, horixe da Eibarko hiritarren eskariei erantzuten jarraitzeko bidea.

Eusko Jaurlaritzarekin dagoen akordio horren barruan hainbat inbertsio-partida daude sartuta, herritarrekin dugun hartu-eman etengabetik sortu eta haiek egindako proposamenak eta iradokizunak alderdi teknikitik eta ekonomikotik aztertu ondoren, bideratutako partidak.

Horren ondorioz egingo ditugu hobekuntza-lan hauek: Txomoko parkearen goiko aldea, Eibarko Bizikleta plaza, Karmen 1-2-3-5 inguruak, Mutiolako espaloiak eta parkea, Isasiko espaloia, aparkalekuak Aizarnako partzelan eta pasabide goratuak egiten jarraitu.

Akordio ekonomiko horri esker egingo dira baita Jazinto Olabeko ludoteka, kanpoko igerilekuetako aldagelaren eraberritzea edo eraginkortasun energetikoa.

Baina kapitulua funtsatzen duten partida handi bi horien ondoan azpimarratu egin behar da baita Azterketak eta Proiektuak egitera



zuzendutako partidaren garrantzia. Zirriborroan bertan ere bazegoen zenbateko handi bat horretarako jarria, Udal Taldeekin negoziatu ondoren bikoiztu dena, izan ere, beharrezkotzat ikusi baita proiektu idatzitan sorta eder bat edukitzea, beren bideragarritasun teknikoarekin eta eduki ekonomikoarekin jantziak, agintaldian zehar apustuak zuzen egin, planifikatu eta lehenetsi ahal izateko.

Atal handi horien ondoan egon arren obra txikietara joango diren 300.000 euro horiei ezin zaie kendu duten garrantzia, egin diren proposamen ugari guztiei erantzuteko helburuz baitaude. Proposamen horiek gehienak auzoz auzo egindako bileretan jasotakoak dira; baina hor daude baita ikastetxeetako hobekuntzak, landa azpiegiturak, asfaltatze-lanak edo hiriekipamenduetan, hilerrian, iturrietan edo lorategietan egingo diren hobetzelanak.

7. kapitulua. Kapital transferentziak

Kapitulu honek bi jarduketa islatzen ditu, nagusiki hauek:

- Udal honek jabe elkarteekin dagoeneko finkatua duen konpromisoa fatxadak berriztatzeko eta igogailuak ipintzeko, edo igogailu zaharrak kendu eta berriak ipintzeko eta pegoretako irisgarritasuna hobetzeko. Urte honetan konpromiso hori hedatu egiten da eta energiaren eraginkortasuna eta aurrezpena dakarten jarduketa zaharberritzaile guztiek erantzun hobeago bat jasoko dute.

-Bigarren tokian hor dugu hiru parteren arteko akordio bat, hileak daramatzana jorratzen, eta urte honetan zehar, errealitate bat izatea espero duguna. Tekniker, Bic-Berrilan eta Udalaren arteko akordioa dugu hori, Teknikerren instalazioetan bertan leku bat prestatu eta Bic Berrilan-en aldeko apustua egitean datzana, hark, proiektu teknologiko berrietarako sehaska gisa, ekintzailtza eta intra-ekintzailtza jorratu eta enpresa-asmo berriei babesa eman diezaien.



8. kapitulua. Finantza-aktiboak

Ez du inongo ondorenik Dokumentuaren balorazio orokorra egiteko orduan.

9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

Udalak duen zorraren zenbatekoa biltzen du, eta konparaziozko azterketatik eta Udal Kontu-hartzaitzaren balioespenetik, kontrolatutzat eta egonkortutakotzat hartu behar dugu.

Memoria honek 2016ko Aurrekontuaren alderdirik esanguratsuenak batu nahi izan ditu; kapitulu bakoitzaren bilakabidea eta portaera aztertu nahi izan du, aurreko urteetakoekin konparatuta eta zein testuingurutan murgiltzen garen ikusita.

Agintaldi honetako lau aurrekontuetan hauxe dugu aurrea. Edozein behatzaile objektibok hiria azken urte hauetan asko hobetu dela aitortu arren, ez dago zalantzarik: asko dira oraindik aurrean jarriko zaizkigun etorkizuneko erronkak.

Gai izan behar dugu gure erantzunbeharretik biharrean jardun eta hiriaren egoera ekonomikoa hobetzeko; gure industriak edo erakar dezakegunak, gure teknologiak, gure merkataritzak Udal honetan eta gainerako erakunde eskudunetan erremintak bilatu ditzaten, beraien jarduera garatzen, hazten eta aberastasuna sortzen laguntzekoak, eta era horretan, enplegua sortu, horixe baita gure ardurarik nagusienetako bat.

Herritarrengandik gertuen dagoen administrazio hori izaten segitu behar dugu, oinarrizko zerbitzuetan mozketarik egiteke, zailtasun handiena duten familiei lagunduz eta garrantzia sozial handieneko erabakiak lehenetsiz, txartuen pasatzen ari den horri bizimodua erraztu dakion.

Hirigintza-hobekuntza, bizitza-kalitatea, irisgarritasuna, hobekuntza energetikoa edo hiritargoaren oinarritik bertatik jaiotzen diren proposamen guzti horiek izan behar dute gure jardunaren gidari.

Ez dut zalantzarik hau esatean: guztiok gara beharrezkoak etorkizunak aurrean jarriko dizkigun erronka guzti horiek lortzeko. Horrela



ulertu dugun lehenengo mementotik bertatik, eta beti erakutsi dugun hitzarmen-zaletasun horretatik ibili gara biharrean Aurrekontu honek, hiriarekin onerako, elkarrekin lanean jarduteko balio ahal izan dezan. Horrela ulertu dute baita gainerako Udal Taldeek, eta borondate guzti horien emaitzak ditugu indar politiko guztiekin lortutako akordioak, Aurrekontu honi, litekeena bada, oraindik legitimitate gehiago ematen diotenak.

Berriro diot: lautik aurrena dugu Aurrekontu hau, baina inguruabarrak eta borondateak urte honetako negoziazioan bezala mantenduz gero, zalantzarik gabe, bidean egingo dugu topo elkar, urtean zehar nahiz etorkizuneko aurrekontu-akordioetan. Dударik gabe diot hau: Eibar da mugitzen gaituena eta Eibar da gure helburu.